

4

DOLUMINAK EMATEA

A Doluminak ematekoak

B Eskerrak ematekoak

C Oroigarriak

D Urteurrenekoak

A

Doluminak ematekoak

<p>1 ▶</p>	<p><i>Sekulako samina dugu zuen aita hil dela jakin eta gero. Zuen atsekabearekin bat egiten dugu eta haren aldeko ospakizunetan parte hartuko dugu.</i></p>	
<p><i>Benetan atsekabeturik gaude, zure emaztea hil dela jakin dugu eta. Badakizu estiman genuela. Hura galdu eta ulertzen dugu zure samina eta atsekabea; gurea ere handia da, laguna galdu dugu eta.</i></p> <p><i>Ez daukagu berbarik zu kontsolatzeko, baina jakizu gure adiskidetasuna duzula eta gure barru-barruan gogoratuko dugula.</i></p>	<p>◀ 2</p>	
		<p>3 ▼</p>
	<p><i>Atsekabeturik gaude zuen ama hil delako. Emakume ona zen. Zuen saminarekin bat egiten dugu. Bene-benetan doluminak. Besarkada handia.</i></p>	

Doluminak ematekoak

4



Atsekabe handiz jakin dugu gure lagun eta zuen ahizpa Inesa hil dela. Gaitza egiten zaigu gure sentimenduak adieraztea, denok maite genuen-eta, beti zegoen prest denoi laguntzeko. Zenbat une gozo hura gogora ekartzean! Gure bihotzean eramango dugu beti.

Zuen atsekabean eta hura gogoratzean lagundu gura dizuegu.

Besarkada handia.

5

Triste gaude Jon hil dela jakin dugulako. Jaso ezazu gure doluminik sentikorrena eta eskatzen diogu Jaungoikoari haren alde egin dezan eta bakea eta lasaitasuna eman diezazkizun.

6



Gure samina adierazi nahi dizugu, semea galdu duzualako. Gogoan dugu zein ona eta jatorra zen. Zurekin bat egiten dugu eta gogoan izango dugu haren aldeko ospakizunetan.

1



BIXENTE GOIKOMENDIA

Jaso ditugun atsekabezko adierazpenak eta haren alde eskaini dituzuen otoitzak eskertzen dizkizuegu.

Eskoriatza, 1999ko azaroaren 14a



BIXENTE GOIKOMENDIA

Senitartekoak (emaztea eta seme-alabak)



Eskerrak ematea.

Aretxabaleta, 2003ko apirilaren 5a

2

C

Oroigarriak

<p>1</p> 	<p><i>Miren Solobenta Altxorta</i></p> <p>1923 - 6 - 23 1999 - 5 - 30</p>	
	<p>Zure oroimenak indartzen gaitu.</p>	<p>2</p> <p>3</p>
<p><i>Miren Solobenta Altxorta</i></p> <p>Jaio zaigu hiltzeko 1923 - 6 - 23 Hil zaigu bizitzeko 1999 - 5 - 30</p>	<p>Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik ez zaitugu inoiz ahaztuko.</p>	<p>Ni hilen naiz baina maitasunak bizirik dirau.</p>
<p>Isiltasunean izan dira zure lana eta bizitza, beti izango zara gure oroimenean eta bihotzean.</p>	<p>4</p> <p>6</p>	 <p>5</p> <p>7</p>
	<p>Zure eskuetan uzten dugu Jauna guk maite genuena.</p>	

C

Oroigarriak

 <p>8</p>		<p>9</p>
<p><i>Hil zara baina biziko zara zu beti gure gogoan. Itxaropena dugu biltzeko berriz zurekin zeruan.</i></p>		<p><i>Samindurik dugu bihotza, motel bizitzaren garra. Gaur faltan sumatzen dugu zuk emandako indarra.</i></p>
<p>10</p>	<p>▶</p> <p><i>Joan zinen gu hemen utzita</i></p>	<p><i>Ez agurrik, ez adiorik gero arte bakarrik.</i></p>
<p>11</p>	<p><i>baina, jakin ezazu, inoiz ez zaitugula ahaztuko.</i></p>	 <p>12</p> <p>13</p>
<p>▼</p> <p><i>Ez niri agur esan gero arte baizik.</i></p>	<p>▼</p> <p><i>Maitasuna ez da inoiz itzaltzen. Eta inoiz itzaltzen ez delako, gogoan zaitugu.</i></p>	
<p><i>Gure ondotik joan zara, baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.</i></p>		<p>◀</p> <p>14</p>

C

Oroigarriak

	15	▶ <i>Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan.</i>	
17	▼ <i>Betiko izango zaitugu gogoan.</i>		
▼ <i>Elkartuko garen esperoan.</i>		▶ <i>Alaitasunaren iturritik edan genuen elkarrekin oroimenean izango zara zu beti gurekin.</i>	18
19			
▼ <i>Laster arte ezpainetan utzi gaituzu penetan orain gure ametsetan bizirik zaude benetan zeruko izarretan eta gure bihotzetan.</i>		Nahiz eta urrun joan mundu honetatik ez duzu alde egingo gure bihotzetatik.	
▶ <i>'Betiko bakea eta zoriona heldu da zure barrenean.</i>		20	▶ <i>Ez zaitugu inoiz ahaztuko, ez zaitugu inoiz galduko gure bihotz barrenean eramango zaitugu betiko.</i>
		21	

1

JUANA LARRAÑAGA

Urteurren meza 2002ko abenduaren 2an

Eguerdiko 12:30ean

Eskoriatzako San Pedro Apostoluaren elizan.

*Etortzen zaretenoi
aldez aurretik, eskerrik asko.*

